

DROGETEN

ITTURRI

Ermuke eta Mallabiko aldizkaria
2023ko OTSAILA · 319. zenbakia

**Mexikon ere
Bagara**



ATE IREKIAK Unibertsitate Graduak

INGENIARITZA

- Goierri-Ordizia MARTXOAK 25
- Bilbao AS Fabrik OTSAILAK 25 / APIRILAK 22
- Arrasate OTSAILAK 25 / APIRILAK 22
- Galarreta EKO Campus-Hernani OTSAILAK 25 / APIRILAK 22
- ONLINE MAIATZAK 23 - 24

ENPRESA KUDEAKETA

- Oñati MARTXOAK 4 / APIRILAK 29 / MAIATZAK 11
- Bidasoa-Irun MARTXOAK 11 / APIRILAK 29 / MAIATZAK 11
- Bilbao As Fabrik OTSAILAK 25 / MARTXOAK 4 - 25 / APIRILAK 29 / MAIATZAK 11 -13

EKINTZAILETZA

- Bilbao BBF OTSAILAK 23 / MARTXOAK 18 / APIRILAK 27
- Bidasoa-Irun OTSAILAK 25 / MARTXOAK 16 / APIRILAK 29
- Oñati OTSAILAK 25 / MARTXOAK 16 / APIRILAK 20

HEZKUNTZA

- Bilbao As Fabrik OTSAILAK 25 / APIRILAK 22
- Eskoriatza OTSAILAK 25 / MARTXOAK 18 / MAIATZAK 20

KOMUNIKAZIOA

- Aretxabaleta OTSAILAK 25 / MARTXOAK 18 / MAIATZAK 20

HUMANITATEAK

- Bilbao As Fabrik OTSAILAK 25 / MARTXOAK 18 / MAIATZAK 20

GASTRONOMIA

- Basque Culinary Center
- Donostia MARTXOAK 4 / MAIATZAK 6

Learning
from
reality



Eman izena!

www.mondragon.edu/ate-irekiak-graduak

Gaia: aratusteak.

Caldereros de la Hungría

(Entzuteko: www.alboka.es)

Caldereros somos
de la Hungría,
que venimos en tren especial,
a pasar en vuestra compañía
los tres días de este carnaval.

A cantar y a divertirnos
que esta fiesta es sin igual
¡Ay, cuánta dicha
vamos a gozar!



**Euskal
Birusa
Elkartea**

ARGITARATZAILEA:

Euskal Birusa
Elkarte Kulturala.

HELBIDEA:

Erdikokale zeharbidea 2, 1.
247 posta-kutxa
943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com
www.euskalbirusa.eus

ERREDAKZIO TALDEA:

Alazne Aiestaran, Estibalitz
González, Nahia Ruiz Albizuri
eta Dorleta Vidal.

KOORDINAZIOA

ETA MAKETAZIOA:

Dorleta Vidal.

AZALEKO ARGAZKIA:

Nagore Espilla.

LAGUNTZAILEAK:

Antonio Hernández 'Cuco',
Patxi López, Mallabiko Eskola,
Juan Carlos Martín,
Valentin Mugarza,
Jon Saez
eta Libe Solozabal.

ARGAZKIAK:

Fernan Alonso, Charo de Cruz,
Estibalitz González,
Lurgaia, Mallabiko Eskola,
Ainara Mallagarai,
Valentin Mugarza,
Nahia Ruiz Albizuri,
Mireia Suárez, Emilio Txurruka
eta Dorleta Vidal.

PUBLIZITATEA:

943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com

INPRIMATEGIA:

Gertu Koop. (Oñati).

BANAKETA:

Maren Agirre,
Piedi Eizagirre
eta Koldo Narbaiza.

TIRADA:

2.425 ale.

ISSN:

1133-973X.

LEGE GORDAILUA:

SS-213/1994.

*Drogeteniturrik ez du bere gain
hartzten aldizkarian adierazitako
iritzien erantzukizunik.*

Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



ERMUKO UDALA



MALLABIKO UDALA



Nagore Espilla · Mexiko

“Hona etortzea esfortzu bat izan da erosotasunetik kanpo gaudelako”

Lan proposamen bat dela medio dago Nagore Espilla ermuarra Mexikon. Uztailean abiatu zen etxekoekin batera, senarra eta hiru alabekin, Querétaro hirira. Bi urtetarako joan dira eta familiarentzako esperientzia aberasgarria izaten ari da.

Testua **LIBE SOLOZABAL**

Nola suertatu zen bidaiari hau?

Senarrak eta biok enpresa berdinean egiten dugu lan, eta honek filial bat du Mexikon. Bertan lan egiteko aukera eskaini ziguten eta onartu egin genuen. Gure alabak oraindik txikiak dira eta kanpora joateko une egokia iruditu zitzaigun.

Zelakoa izan da aldaketa?


Hasieran ondo moldatu ginen, oporretan egongo bagina bezala eta oso emozionatuta geunden. Gerora, gu lanean hasi ginen eta umeak eskolan. Hiri hau oso handia da, edonora joateko kotxean goaz eta edozer gauza egiteko denbora gehiago behar dugu.

Erabaki erraza izan zen?

“Hiri hau oso handia da eta edonora joateko kotxean goaz. Edozer gauza egiteko denbora gehiago behar dugu”

Filialera etortzea segurua izan da lana berdina delako. Baina, guretzako esfortzu bat izan da, erosotasunetik kanpo gaudelako.

Nola hartu zituzten han?





Harrera ona izan genuen orokorrean. Eskolan oso jarrera ona izan zuten, eta haurrak talde txiki batean daude kanpotik etorritako jendearekin.

Zelan moldatu zarete?

Umeak apur bat galduta zeuden hizkuntzarekin, batez ere txikiena. Euskaraz berba egitera ohituta daude eta hemen gaztelaniaz hitz egiten dute besteekin. Ikasteko malgutasuna daukate eta gero eta hobeto konpontzen dira adierazteko.

Zer da gehien gustatu zaizuna?

Klima zoragarria da! Egunero gabiltza fraka motzetan.

Eta bertako gastronomia?

Ondo jaten da. Gainera, goiz-goizetik kalean janari-postuak daude eta orduro dago jendea kalean jaten. Ez dute arrain asko kostaldetik urrun gaudelako, baina aukera gozo ugari dago: *chilaquiles*, *quesadilla*, *enchilada*... eta saltsa asko!



“Goiz-goizetik janari-postuak daude kalean, eta aukera gozo ugari daude”



Nagore Espilla eta bere familia El Chuveje ur-jauziaren ondoan, Querétaron.

Zerbait botatzen duzue faltan?

Kalean denbora gehiago pasatzea. Hemen normalean etxeetan biltzen dira eta eta kalean denbora gutxiago egoten gara. Bestalde, alabek haien lagunak botatzen dituzte faltan, baina zorionez hemengo gizartea nahiko irekia da eta gertuko tratua ematen digute hasieratik: festaren bat ospatzen dutenean familia gutzia gonbidatzen dute.

Noiz egon zarete Ermuan azken aldiz?

Gabonetan itzuli ginen, familiarekin egin genituen ospakizunak eta lagunekin ere egon ginen. Alabek asko eskertu zuten! Udan berriro bueltatuko gara aste pare bat pasatzera.

Saihesbidea jomuga

Ermuko saihesbidearen lanak amaitzearen aldeko mobilizazioek kaleetara atera dituzte Udaleko ordezkariak eta herritarrak, urteetako atzerapenarekin geldirik dagoen proiektua aktibatzeke asmoz.

Testua **ESTIBALITZ GONZÁLEZ**

Erdigunetik igarotzen den etengabeko trafikoari irtenbidea emateko proiektua izan zen Ermuko saihesbidearena, eta fase desberdinak izan ditu denboran zehar, une desberdinetan egiteko pentsatutakoak.

Hogei urte dira proiektua martxan jarri zela. Lehen fasearen lanak 2018ko irailean inauguratu ziren, Uretamendiko tunela eta autopistako sarbide berria, Eibarko saihesbidearekin lotu ostean Sallabenteko errotondan. N-634 errepidetik, hau da, herrigunetik egunero 9.000 ibilgailu —euretatik 1.800 kamioi— desbideratzea suposatuko zuela aurreikusten zen orduan. Beste bi faseak airean geratu ziren, Urtia eta Goitondo poligonoekin loturak egingo zituztenak.



Aurrekontuetatik kanpo

Lau urte joan dira lehen fasea amaitutzat eman zenetik eta, Ermutik salatzen den bezala, ez zaio bigarren faseari oratu, are gutxiago hirugarrenari, eta ekiteko zantzurik ere ez da sumatzen. Alarma guztiak ixotu ziren Bizkaiko Aldundiaren aurtengo aurrekontuetan saihesbiderako euro bakarria aurreikusten ez zela frogatzean. 200 herritarrek sinatuta alegazioak aurkeztu ziren, 2. eta 3. fase horien obren erabateko geldiera salatzeko eta berehalako hasiera eskatzeko.

Bigarren faserako diseinatutako proiektuaren arabera, zubibide batek lotuko litzuke Uretamendi barrerako txatarria, Areitiora bidean, eta Tesouro zeramikak, Mallabirako errepidean, Urtiarako sarbidea ahalbidetuz. Hirugarren faserako izango zen Mallamendi zulatuko lukeen tunela, Betiondopetik Pagorbeko kanposantu ingururaino, Goitondo industrialdearako sarbidea erraztuko lukeena.

Denbora aurrera, Aldundiak eta Udalak egin beharrekoak egin ez dituztela ikusita, egoera salatzeko eta saihesbideari lehentasuna eman diezaiotela eskatzeko, “Ermuko Saihesbidea – Variante Ya” izenarekin Herriar Plataforma bat ere sortu da, Udalarekin batera edota bere kaxetara hainbat ekintza burutu dituena.

ONAK LEIRE MAYORA
PODOLOGOA
Erdikokale 1, 1. A
48260 Ermua
☎ 943 17 47 44





Otsailaren 4an VI. Mendeurrena kaletik abiatu ziren manifestazioak.



SAGARDUI
poltsak

Zubiaurre, 29 - Ermua - 943 170305



AMALUR
FISIOTERAPIA

688 61 98 96
zeharkale 12 bajo
48260 ERMUA

IRENE ESQUÉ col :666 EGOITZ FORMOSO col :675



LONDON
-taberna-

Otsaila hasieran, Udalbattan ordezkariak duten alderdi guztiek, VI. Mendeurrena kalea mozteko dei irekia egin zuten, Plataformako kideez gain herritar ugariaren parte-hartzearekin. Kale hau, N-634 errepi-dea eta baita Zeharkale dira pisu astuneko kamioien pasoa izateagatik, herrian ingurumen eta zarata kutsadura handiena jasaten duten hiru bideak. Sinadura bilketa bati eman zitzaion hasiera une horretan ere eta ia 2.000 sinadura jaso dira orduz geroztik.

Alternatibak

Herri Plataformak otsaila erdi aldera Bizkaiko Batzar Nagusietan agerraldi bat egin zuen, erakundeari bere haserrea eta nekea erakutsiz, ordura arteko proiektuaren nondik norakoak azalduz eta arazoari aurre egiteko —denboraldi batez ez bada ere— emergentziatzako bi alternatiba helaraziz. Batek Urtia industrialdeara doan trafikoaren sarbidea N-634tik egitea proposatzen du, Bizkaitik datorren trafikoa bideratuz eta herria zeharkatzen duen trazadura 1,8 kilometrotik 0,2 kilometrora murriztuz. Bestea, Gipuzkoatik datorren trafikoari eta Goitondoko industrialderako sarbideari dagokio eta bertaratzea eginez AP-8tik Abadiñoraino eta N-633 eta BI-2301 errepi-deak erabiliz, Goitondoraino iristea ahalbidetuko lukeena, hirigunean zeharreko 2,2 kilometroko trazadura erabat desagertuz.



Herriak ingurumen eta zarata kutsadura handia jasaten du

Asteartetik ostiralera
9:00-12:00 15:00-19:00
Larunbata 8:30-13:00

943 170474

ileapaindegia
Silvia
peluquería

688819336

solozabal
tabakoak

torrekua 1
tel./fax: 943 17 07 33

Psikologia
Ongizate pertsonalerako zentrotan

GUZTIOK
Nahia Rojo Bustindui
Psikologoa eta Sexologoa

Zubiaurre 40 · Ermua
Hitzordua: 688 85 18 95

KRABI
ileapaindegia
Estetika

Tel: 943 03 17 56 Diputazio, 5 ERMUA

OSTEOPATIA
Pablo Lucena

617 680 156
info@osteopatialucena.com
Probaleku 5 - Ermua (Bizkaia)

Neurriokin egunero hirigunea zeharkatzen duten 1.300 kamioien pasoa arinduko litzateke argudiatu zuten Plataformako ordezkariak eta, alternatiba hauek AP-8ko bidesaria gehitzea ekarriko lukeenez, industrialdeko enpresentzat berau doakoa izatea ere eskatu zieten Aldundiko ordezkariari. Bi alternatiba hauek bariantearen obrak amaitu arte egongo lirateke indarrean, noski.

Bestalde, Bizkaiko Foru Aldundiak Imanol Pradales Azpiegitura Ahaldunaren bitartez aditzera eman berri du, iazko ekainetik ari direla Urtiako proiektuaren erredakzioan eta 2025eko urtarrila edo otsaila aldera lizitatuko dela, bertako obrei hasiera emanez.

Udala eta Herri Plataforma Informazio Batzorde baten batzekotan dira eta azken hauek Udal ordezkariari euren proposamena helarazteko asmoa dute, aldi berean eskatuz trafiko astuna erregulatuko lukeen Udal Ordenantza bat diseinatzea Ermuko Udalaren kompetentzia den herriguneko tramoan, Sallabenteko errotondatik Zearreko bueltaraino.



Bizkaiko Foru Aldundiak aditzera eman du iazko ekainetik ari direla Urtiako proiektuaren erredakzioan eta 2025eko hasieran lizitatuko dela, obrei hasiera emanez.



CITROËN
AUTOS AMEDI

Zearreko buelta eraikina 3, L8 pab.
Telefona 943 17 04 14

MEDITERRÁNEA
VINTAGE STORE

Arropa eta osagarriak

Orbe Kardinals plaza 6
Ermua, Bizkaia

678 359 337

mediterranea_vintage

Bitsi-denda Tailor propioa Erloju denda



Senén
1978

Diseinuak eta kalitateak bereizten gaituzte

San Pelayo zeharbidua 4 ERMUA (48260) BIZKAIA
www.joyeriasenen.com - joyeriasenen@gmail.com



Hanigan's
Irish Tavern

Gosari, bazkari eta afariak eramateko prestatzen dugu

Astegunetan 7:00etatik zabalik
Asteburuetan 10:00etatik.

Komentukua z/g. 941010527

“Pintto Pintto abestixe pailasuei neuk erakutsittakue da”

Testua ESTIBALITZ GONZÁLEZ

Euskal ume-kantuetan abestuenen izengo da *Pintto Pintto*rena, belaunaldi desbardinaren ume-errepertorixoko izar. Bere historixiek Mallabire eruten gaitu eta gaur egunien Zegaman bizi den Emilio Txurrukan izena dago berari lotute. Honek Zaldibin entzun, goguen hartu eta Mallabiko Gazte Alai dantza taldeko umiei kantatzen erakustiarri ekin otsen. Han hemenka famatu egin eben pailasuengana zelan ailegau zan, badaka bere istorixie.

Zer dala-ta zure izena *Pintto Pintto* kantuan sorreran?

Doiñue eta hasierako bertsue neugandik jaso ebelako Kixki, Mixki eta Kaxkamelon pailasuek, gerora Txirri, Mirri eta Txiribiton izengo zienak.

Umetan ikasitte akaso?

Ez, ez. Soldautzie ein ostien ikasi neban! 1972-73 urte ingurue izengo zan eta Zaldibin entzun neban estreinekoz.

Zelan ba Zaldibin?

Orduen Beasainen neuen biherrien eta behin zaldibiar soldadu-lagun batek Saturdi auzoko erromerixara konbidau niñuen. Andrazko batzuk euezen bertan, umiekin abestixoi



kantatzen, eta hantxe hartu nebazan nik horrek, illu-nabar baten.

Umiekin olgatzten ziherduen akaso?

Bai, andereño itxurakuek zien. Ikastola batzuk ordurako hasitte euazen lanien eta umiekin asko abesten zan.

Zuk zer hartu zenduen goguen, musikie, letrie...?

Bixek. Doiñue buruz hartu neban eta letrie be bai, lehenengo bertsuana: *Pintto Pintto gure txakurra da-ta... Begi bat ixten du jolastu nahi badu*-rekin amaituz. Gustagarri ein jatan txistuaz jotzeko eta Mallabiko Gazte Alai dantzari taldien inguruen genbizen gazte-txo eta txikixekin abesteko, dantzaz aparte kantuek be erakusten genduzelako.

Baiña Beasainen zengozela esan dozu?

Bai, baina asteburuetan etxera etortzen nintzen, Urizar-Etxebarrira. Beasainera juen aurretik Frantzien egon nintzen enpresa baten biharrien urte eta erdiz, baiña handik bueltan be jarraitu neban dantza taldiakin, umiekin... Jaixek antolatzen talde haundixe ibiltzen giñen eta 1975eko Andramarixetan umientzat zoezer ekarri bihar zala eta ikuskizun bat lotu gendun Kixki, Mixki eta Kaxkamelon pailasuekin.

Orduntxe ikasi eben *Pintto Pintto*na?

Bai, txistuaz joten eta umiekin kantatzen entzun giñuzen. Itxura danez, umiontzako egokixe eta ikaste-ko erreza begintandu jakuen; segiduen pasau eben pentagramara.

Bai, ze orduen grabau-eta ezebez!

Ez, grabau barik, pentagramara zuzenien. Joten nebi-lela, eurek han ebizen bueltaka; entzun eben eta gustau ein jakuen. Barriro jo erain baosten, ez dakitt, hori ez naz ondo gogoratzen, baiña segiduen pentagraman hartu ebela, bai: Jose Ignazio Ansorenak, txistularixe ha be, neure aurrien zelan apuntau eban goguen deuket.

Orduen pailasuen bittartez ezagutzera emon aurretik, Mallabiko umiek bazekixen kantu hori...

Bai, urte eta erdi edo bi urte lehenagotik ikasitte geunken.

Pailasuek ezin imajina u eben ze oihartzun eta zabal-kunde izengo eban harek kantutxuek...

Inork bez! Hasi barri samarrak zien emankizunek eskeintzen eta euren proiektoreko egoki ikusi eben. 1976en argitarau eben diskorako grabau eta gaur egun arte!

Une ona zan: umiei zuzendutako euskerazko kantu gosie euen, transmisiñuan balixuaz konturatute euezen asko...

Bai, kantu erretza zan eta eurok zabalkundie emoten jakin eben.

Entzuten dozunien, zer pentsatzen dozu?

Poza neuk erakutsi izanaz! Behin batek esan osten: "Hi, liburu baten azaltzen haiz!". Mirri eta biok lanien Ansorenak aipatzen dau neuk erakutsittakue dala *Pintto*. Oraintsura arte ez dogu kontakturik izen, baiña euron 50. urteurrenan harire, hamendik eta hortik, neure telefonue lortu eta iazko apirillien deittu ein osten Jose Ignazio berak. Grabaketa baten parte hartzeko konbittie egin osten, EITBk prestatzen ari zana, eta hantxe azaltzen naz hauxe istorixiau kontatzen.

Kantue gustagarri izen leikela barruntatzen aurrengue izen ziñen. Ansorenak be zintzo jokatu dau kantu horren bitartekaritza zeuri aitortuz...

Bai, beretik urten dau ni topatzie eta grabaketarako konbittie eittie. Niri lehen bertsue entzun osten; gero eurek txakurran itxura eta izaerian gaiñeko beste lau sortu zittuezen, abestixe osatuz. Deittu ostenien, aittatu osten kantu horren jatorrixan arrastue Alemanian topau ebela: txirula ezitirako ikaste-metodo baten, XIX. mendeko ume-dantza lez dator transkribatute. Pentsau! Musikie, unibertsala beti!

**"Txistuaz joten nenbilela,
gustau ein jakuen eta segiduen
pentagraman hartu eben"**



- Akordeoia	- Gitarra	- Pianoa
- Biolina	- Gitarra elektrikoa	- Saxofoia
- Biolontxelo	- Gitarra baxua	- Trikitrixa
- Bonbardinoa	- Lengoia musikala	- Tronboia
- Flauta	- Klarinetea	- Tronpeta
- Kantua	- Panderoa	- Txistua
	- Perkusioa	

**MUSIKA
ESKOLA**

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00
albokamusikaeskola@hotmail.com



ITZE
OPTIKA
AUDIO

Entzumenaren doako azterketak
Audifonoetan azkenengo teknologia



Donagarai parajeen zuhaitz autoktonoen landaketa egin da

Lurgaiia Fundazioaren ekimenez, Donagarai inguruko baso-labrantza baten bertako espezieen zuhaitzak eta zuhaixkak landatu dira, lursailaren jabeekin, Andrés Zelaieta familiarekin lur-zaintza akordioa sinatu ostean. Lursail hori etorkizunean bertako espezieen baso bihurtzea da familiaren asmoa, bilakaera naturalari eutsiz, entresakarik gabe eta sastrakak kendu gabe, Lurgaiaren laguntzari esker bideratu ahal izango dutena.

Fundazioaren helburu da kaltetuta-ko ekosistemak berreskuratzea eta kontserbatzea; bereziki baso autoktonoetan, bertako landaredian eta jatorrizko prozesu ekologikoetan jartzen du arreta. Landareen erosketan eta landaketaren gainontzeko beharrianetan BBK Fundazioak lagundu du, eta deialdian 35 pertsona inguruk hartu zuten parte, 417 arbola landatuz: besteak beste, haritza, urkia, gorostia, arraklana eta elorri zuria.




Frontenis maratoia egingo da Mallabian

Mallabiko frontoia, otsailaren 25ean, zapatua, frontenis mistoko txapelketako eszenatokia izango da, bertako A.D. Mallabia F.T. taldeak antolatuta. Pilotaleku barruko maratoi honetan parte hartzekotan, ezinbestekoa da izena ematea eta 669 028 718 telefonora egin behar da dei, 18€ ordainduz bikoteko. Sariak izango dira: lehen bikoteak, txapelak + 300€; bigarrenak, garaikurra + 200€ eta hirugarren sailkatutakoentzat, garaikurra + 100€.

III. Krosmorea martxoaren 3an ospatuko da

Berriro ate joka dugu bi urtetik behin egiteko jaio zen lasterketa herrikoi hau. Logoa Mallabiko eskola-umeak egindako marrazkien artean aukeratu da eta herriko elkarte desberdinak hartuko dute parte: kirol, dantza eta Txondor taldeek, guraso elkarteak, jubila-tuak, abesbatzek eta Nahikari talde feministak. Korrikarekin txandakatzen da eta haren dinamika bera du: lekukoa eskuz esku pasatzea. Luzera xumeagoa du Mallabikoak: hiru kilometro eta erdi, eskolan hasi, Microdecora jaitsi eta par-

ke handian eman amaiera, abesti batekin eta manifestuaren irakurketarekin. 17:00etan hasiko da eta furgoneta eta *spekerra* ere lotuta daude. Udalaren babesa duen herri ekimen hau irekia da eta herritar guztiak parte hartzera gonbidatzen dituzte antolatzaileek.





Bidarteko San Pedro baseliza Arandoño auzotik ikusita eta atzean Anboto mendia, elurtuta.
Argazkilaria: Fernan Alonso.

Ferretería
ANBOTO
Burdindegia

Orain
KOTXEKO GILTZEN
KOPIAK ere
egiten ditugu

943 17 69 76
607 33 11 77

ZUBIAURRE, 25
ERMUA (BIZKAIA)

www.ferreteriaanboto.es

Horacio Decoración

VI Centenario 10 - Ermua
943 03 15 80
www.dghoraciodecoracion.com

TAPIZERIA - ALTZARIAK - OSAGARRIAK

ALTALDI
Correduría de Seguros, S.L.
ermua@altaldi.com

INMOBILIARIA J.S.
www.inmojs.com
943 17 00 22
678 21 20 75
info@inmojs.com

Probaleku 8 · ERMUA 943 17 01 43 · 943 17 18 02



Zuhaitz Egun arrakastatsua ospatu zen

Artarrai Mendi Taldearen ekimeenez eta Ermuko Udaleko Ingurugiro Sailaren babesarekin, Zuhaitz Eguna jendetsua eta arrakastatsua izan zen. Jardueraren helburu nagusia da ume eta helduengan arboladiak eta basoek gizadiarentzat eta planetarentzat duten garrantzia

nabarmentzea, gure naturgunea babesteko behararen kontzientzia areagotuz. Deialdia eskola guztietara zabaldu zen, eta eskola-umeak eta haien familiak izan ziren parte-hartzaile nagusiak. XII. edizio honetan, 130 lagun batu ziren, plazan hasiz eta handik Joxiora, Sallabente

gaineko parajera abiatuz. Aitzur, palaz eta esku-indarrez lagunduta 300 zuhaitz inguru landatu ziren, erdiak pagoak eta beste erdiak hartzak, txiki eta nagusien pozerako.



Zaldibarko zabortegiaren hondamendiak 3 urte

Zaldibar Argitu herritar plataformak ekitaldia egin zuen Eitzaga auzoan otsailaren 5ean, duela hiru urte Zaldibarko zabortegian gertatutakoa eta ondamendi hartan hildako bi langileak gogoratzeko. Zaldibar Argitu plataformak deituta, ekitaldia egin zuten Eitzaga auzoan. Bertan ehunka lagun bildu ziren, eta ekitaldi xumea egin zuten txalaparta, dantzari, hitzaldi eta Lucio Alonso musikariaren emanaldiarekin. Amaitzean, duela hiru urte hildakoei lore eskaintza egin zieten eurei eskainitako eskulturaren. Plataformako kideek, Joaquin eta Alberto oroituta, orain hiru urte zabortegian gertatutakoa ekidin zitekeela azpimarratu zuten, eta erantzukizunak argitzeko aldarria egin zuten beste behin ere.

 NEREA INIGUEZ
HORTZ KLINIKA



San Inazio 4 - Ermua
943 030 512 / niklinika@gmail.com

HARATEGIA - URDATEGIA

MIGUEL

2012ko BILBOKO
TXORIZO TXAPELLETAN
BIZIARIKO
TXAPELDUNAK

PROIEKTU 5 - 943170565
ERMUA



Komunitateak

San Pelayo

Aholkularitza
juridikoa

Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua



Maite Gorrotxategi omendu zuten Durangon

1789 urtean eraiki zen Durangoko Ezkurdi Jai-Alai pilota-lekua eta azken berriztatze lanen ondorioz hilabete batzuk itxita egon ostean, irekiera ekitaldian Maite Gorrotxategi Potente omendu zuten, pilotalekuetan Ermua izenarekin kantxaratu zen erraketista. 96 urte ditu eta azken 25 urtetan Durangon bizi da ordura arte Ongaraiko auzokidea izandako pilotari hau. Pozik hartu zuen gonbitea eta are pozago egin zion aurre omenaldi uneari. Ima Garrastatxu alkatea eta Julian Ríos alkateordeak Udalaren izenean egin zioten harrera kantxa erdian, Ezkurdiko harmaila guztiak jendez lepo, bertaratutakoen berotasuna eta txalo zaparrada luzea irribarretsu jasotzen zuen bitartean.



Julene Bouzok brontzea eskuratu du gorako jauzian

Bidezabal Durango Atletismo taldeko kirolari ermuarrak Antequeran lehiatutako Espainiako 38. Atletismo Txapelketan, 23 urtetik behar-koen kategorian eta bere espezialitatea den gorako jauzia modalitatean, brontzezko domina lortu du, 1,73 metroko langa bigarren saia-keran gaudituz ostean. Bigarren sailkatuaren marka bera egin zuen Julenek, baina hark lehen saia-keran lortu zuenez zilarrezko domina eskuratu zuen. Una Stancev Stevanovic izan zen lehena, 1,75 metrotar jarritako langaren gainetik pasatu ostean. Orain urte bi eta pista berean sailkape- nean bigarren geratu zen, Errotabarri eskubaloi taldeko jokalaria ere den gazte hau.



Jon Albizu
Ainhoa M. Goitandia

Extremadura zeharbidea z/g
48260 ERMUA (Bizkaia)
Tel.: 943 174 505



ZURE FINANTZA-OSASUNERAKO BAZKIDE ESTRATEGIKOIA

ZERGA, LAN ETA KONTABILITATE AHOLKULARITZA

ERMUA

Plan B

Coffee Lounge

Gin & Beer



ZUZENBIDE
KONTUAK

Lege eta
kontu aholkularitza

Izarra Centre eraikina
Tel: 846080080

Mugikorra: 688885435
zuzenbidekontuak@gmail.com



Santa Agedan batutako dirua Kolonbiara bidali da

Aurten eta bi urtez abestu barik egon ostean, Santa Ageda bezperak hainbat kantu-zale batu zituen berriro. *Gizon arruntaren koplak, Goizian argia hastian, Baldorbi, Bautista Basterretxe...* kantutegi tradizionalako abestiekin batera Santa Agedaren koplak tartekatuta zituzten. Kalejiran zehar eta asko eta askoren ekarpenari esker ba-

tutako 664,76 euroak Kolonbiara, Barranquilla hirira bidali dira. Bertako Probidentziako Santa Maria ikastetxean ari da lanean Mireia Suarez ermuarra eta dirua hezkuntza zentro hartako familia behar-suenen premiak artatzeko erabiliko da, haien seme-alaben eskola materiala eta eguneroko gosaria bermatze asmoz.



ARRIETA CORDEVI
Etxetresna elektrikoak,
telebistak,
musika-ekipoak...
...prezio eta kalitate
ezin hobean.
VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA

LEIRE RASCO
BIZARTEGIA
ILEAPAINDEGIA
943 17 17 96
@LEYTHEBARBER
C/GOIENKALE NS
ERMUA (BIZKAIA)

Zuri egokitzen
den odontologia
La odontologia
que se adapta a ti
Dr. OLATZ GARCIA ARREGUI, D.O. 1984
PADI 943 17 04 04
Programa
Anida Dental
Inbardi
Salubritate Berria
San Pelayo Zeharkalea 5
48260 Ermua (Bizkaia)

**Infreñu
Taberna**
Kardenal Orbe plaza
943 174584
www.infretaberna.com

**mari
asun**
LORADENDA
Diputazioa 9 - ERMUA - Tel. 943 174379



Euskaltzaleen Sareak bilerei ekin die, ekainean burutuko den Ermuan Bagara antolatzeko helburuarekin.

Euskarari lotutako hainbat ekitaldi burutuko dira datozen hilabeteotan

Ermuan Bagara, Ermuan Kantuan, Laburbira eta Zinematoia egitasmoak martxan dira berriro, Euskaltzaleen Sarearen, Gazte Asanbladaren eta Euskal Birusa Elkartearen ekimenez.

Testua **ESTIBALITZ GONZÁLEZ**

Ermuan Bagara egitasmoa ekainaren 3a izango du ardatz egun. Dena den, aurreko eta osteko egunetan ere hainbat ekitaldi egongo dira. Jai erraldoia izan zen 2016koa, “12 ordu eta erdiz” lelopean eta 2018koa “3 egun eukaraz” ez zen gutxiagorako. Aurtengoa ere aparta izateko gogoarekin dator.

Ermuan euskararen erabilpena sustatzea helburu duen egitasmo honek, Euskaltzaleen Sarea osatzen duten hainbat elkarten bultzada

izango du. Saretik baina gonbidapena egiten diete elkarte eta banako orori parte har dezaten, elkarlana sustatuz. Bilera irekia egingo da



Lobianon, martxoaren 6an, astelehena, 19:00etan.

Bestalde, Ermuan Kantuan egitasmoaren kantu-jiraren hurrengo datak martxoaren 18a eta apirilaren 22a izango dira.

Laburbirak XX urte

Azkenik, Laburbiraren XX. edizioa izango da aurtengoa eta martxoaren 6tik apirilaren 5era bitartean egingo da. Urtero antolatzen den euskarazko film laburren zirkuitu ibiltari honetara 28 lan aurkeztu dira eta 7 lan hautatu dituzte, herriz herri ibilbidea eginez, hainbat zinema aretotan proiektatzeko. Ermuan martxoaren 30ean izango da, Zineman, 20:30ean. Auakeraketa prozesua lurraldetasuna, genero berdintasuna eta filmen maila kontuan hartuta burutu da, 80 minutu inguruko film-labur sorta ikusgarria osatuz.

Ondoko lanak ikusteko aukera egongo da: *Olatuen isiltasuna*, Maria Bartolome, Erik Campos eta Fernando Martinek zuzendua; *Muskil*, Marina Perosanz eibartarrarena; *Koadro goiari heldu*, Iulen Aranaren lana; *Irrits*, Maider Oleaga bilbotarrarena; *Askofalta da?*, Ane Cuesta bizkaitarrarena; *Erlojupekoa*, Leire Egañak zuzendutakoa eta *Hitzak*, Josu Martinezen zinta. Martxoaren 30eko film emanaldira Marina Perosanz etorriko da, zuzendu duen *Muskil* lanaren gainekoak aurkeztuz.

Jarduera honekin lotuta, Zinematoia antolatu dute elkarlanean Euskal Birusa Elkarte Kulturalak eta Gazte Asanbladak. Herriko gazteek euren lanak aurkezteko aukera izango dute eta film laburrekin batera aurkeztuko dira. Bi sail izango dira: 18 urtetik gorakoentzat eta 18 urtetik beherakoentzat, eta sail bakoitzean hainbat sari banatuko dira.



Martxoak 8ko Koordinazio Taldea:

"Garrantzia ematen diogu egun hau kolektibotasunetik aurrera eramateari"

Martxoak 8ko Koordinaketa Taldea Emakumeen Nazioarteko Eguna antolatzeko sortutako taldea da. Aurten 22 emakume inguruk osatzen dute, eta bai modu indibidualean bai kolektibo ezberdinen ordezkari bezala parte hartzen dute.

Testua **NAHIA RUIZ ALBIZURI**

Nolakoa da Martxoak 8a antolatzeko prozesua Ermuan?

Urtero moduan, ostiraletan Emakumeen Topalekuan egiten ditugun asanblada irekien bidez antolatzen dugu M8a. Garrantzia ematen diogu egun hau kolektibotasunetik aurrera eramateari.

Zein da aurtengo Euskal Herri mailako ardatza?

Bizitzak erdigunean koordinadorak

egindako ekarpenen baitan eratzen da aurtengo Martxoak 8a. Koordinadora honek zaintza sistema publiko komunitario batera eramango

"Zaintza eta honek barne duen guztia nabarmendu nahi dugu aurtengo M8an"

gaituen bide bat zabaltzen du. Epe luzeko begiradaz, mugarri gisa kokatzen du M8a eta otsailaren 1ean akordio sozial bat erdiestea helburu duen dinamika publikoa egiten du, "denon bizitzak erdigunean, revolucionar los cuidados para cambiarlo todo" lelopean.

Nola lurreratu da planteamendu hori Ermuan?

Ermuan argi genuen zaintza eta honek barne biltzen duen guztiari garrantzia eman nahi geniola aurtengo Martxoak 8an. Horretarako, aste osoan zehar tailer, hitzaldi, aldarrikapen zein ospakizun ezberdinak burutuko dira.

Zein da aurtengo egitarauaren proposamena?

Batetik, martxoaren 4rako Zipriztintzenek neomaxismoa eta sare sozialei buruzko hitzaldia prestatu du. Martxoaren 6an, askatasuna ukatu zaien emakumeen gaia jorratuko dugu. Zehazki, atzerritarren barneratzeko zentruetat zain kartzuletaz mintzatuko gara. Zukaldata eta Lagunartean eragileek, martxoaren 7an zaintzak erdigunean jartzearen eta tresna kolektiboak bultzatzearen inguruko mahai ingurua prestatu dute.

Eta Martxoaren 8an?

Egun horretan, 19:00etan manifestazioa egingo dugu, Ermuko kaleak jendez eta aldarrikapenez betetzeko helburuarekin. Ez dugu ahaztuko ez barkatuko COVID-19 pandemiaren testuinguruan gertatutakoak, hori dela eta martxoaren 9an elkarretaratzea egingo dugu Abeletzeko egoitzan. Martxoaren 10ean berriz, emakume migranteen aliantzak eta horien lanari esker HHIren inguruan lortutako garai-penak ospatuko ditugu. Amaitzeko, martxoaren 11n, Sagardo Egunean, neska gazte ikasle subjektuaren garrantzia eta presentzia erakutsiko diogu herriari.




Ermua pilotari bildumaren aurkezpen ekitaldia.

Pilota munduaren ondarea gorde nahian

Ermua Pilotari bilduma aurkeztu du Udalak, profesional mailan eta modalitate guztietan Ermuko izena urruneko parajeetaraino zabaldu duten pilotarien izen-abizen eta askoren argazkia batuz.

Testua **ESTIBALITZ GONZÁLEZ**

Adituen esanetan, ehundik gorakoak dira profesional mailan aritutako herriko pilotariak, eskuz, palaz, erraketaz zein zestaz kanxaratutakoak. Ondare hori galdu ez dadin Udalak liburuxka xume bat argitaratu du, 87 gizonetako eta andrazkoren izenak eta 63ren argazkiak batzen dituen, jaiotzaren arabera kronologikoki ordenatuta. Estatuko makina bat pilotalekutan eta baita Europa, Amerika bietan edo Asian kokatutako beste mordo batetan, frontisaren hormak gogotsu astindu dituzte horretan aritu izan diren kirolariok. Herriko seme eta alaba hauen izena gordetzeko



eta izana aitortzeko asmoa du ekime-nak, pilotaren modalitate guztietan egon den aberastasuna ezagutzera emanaz.

Aurkezpen ekitaldira pilotari ugari eta haien senide asko eta asko gerturatu ziren. Udalaren izenean Juan Carlos Abascal alkateak,

Arritxu Araiztegi Euskara Saileko zinegotziak eta Fernando Aranberri Euskara Teknikariak hartu zuten hitza. Hirurok goraiatu zuten herrian egondako pilota zaletasuna eta horren ondorioz sortutako harrobi gaztea, azpimarratuz baita bilduma hau pilota munduak zein pilotariek merezi duten aitortza egiteko asmoarekin argitaratua izan dela. Zesta modalitatean aditua den Miguel Angel Bilbao idazleak ere aurkezpenean hartu zuen parte eta bertaratutakoen belarriak gozatu zituen pilotari ermuar askoren jokoaren ezaugarriak eta jokatzeko zeuden sasoiko anekdotak irakurri. “Harro sentitu behar zarete zuen ondare pelotistikoarekin eta ezagutzera eman!” esan zuen marxinarrak.

Pilotarien zerrenda osatzeko lagun eta senideengana jo da; ezinbesteko iturri izan dira ere Miguel Angel Bilbao berak argitaratutako *Cesta Punta* liburua eta Jesus Mari Azurmendiren *La pala. La dificultad hecha juego*. Udaleko arduradunek ez dute osatuztat ematen orain arteko izen zein argazki zerrenda eta aurrerantzean hornitzen jarraitzeko asmoa dute. Liburutegiaren bitartez pilotarien materiala jasotzen dihardute eta 943 17 92 12 da bertako telefonoa. Eskaneatu ostean, jabeari bueltatzen zaizkio orijinalak.

Guzti hau ezagutzera emateko konpromisoari jarraituz, Liburutegiko webguneko Bertako bilduman, Kultur Ondarea ataleko Pilota sailean ikusgai jarri dira dozenaka artikulua, prentsa aipamen eta argazki.

Informazio guztia



Charo de Cruz, erraketista

Ermutik kanpo 50 urtetik gora bizi den arren, fresko-fresko ditu ume eta gaztetako oroitzapenak. Erraketan aritu zen, Chari izenarekin eta Madrid frontoian zazpi urte egin zituen jokatzen, honen itxiera arte. Hurrengo lerroetan eta datorren hileko alean pilotak bere bizitzan suposatu duenaz hitz egingo digu.

Testua **ESTIBALITZ GONZÁLEZ**

Ermuan jaio zen Charo de Cruz Molina 1948ko azaroaren 10ean eta urte bete zuela Sallabenteko Anton Txikiren etxera lekualdatu zen Gumersindo eta Juliaren familia, frontoi ondotxora. “Oinazean frontoian ikasi nuen nik” dio eta ohoretzat du hori. Pilotan jokatzeraz laster zaletu zen eta neska koskorra zela auzoko mutilekin aritzen zen frontoian, “marimutil samarra” izan delako beti bere ustetan eta haiek zirelako frontoi-lagun bakarrak.

Eskuz jokatzen zuenez, eskolan Charok ezin izaten zuen idatzi, “boligrafoa ia lotu egin behar izaten nuen eskuok puztuta nituelako, babesik barik jokatzen nuelako”. Lixiban beheratzen jartzen zituen edo zapaldu egiten zituen, oinaren azpian sartuz “hantura jaisten lagunduz” gogoratzen du gure harridurarako.

Sallabenten Santi Agirre eta Iñaki Gorostiza pilotariekin jokatzen zuen. Gogoratzen du zelan Ermin-txako Esteban Agirrek, Santi semeari eta berari behien oritza gordetzen zien. Txahal egin berriaren

behiaren esne horrek “indartsu egiten gintuela”, esaten ziela datorkio akordura. 14 urtera arte egon zen eskuz jokatzen. Une horretan, eskola amaituta, josten ikastera joan zen Dioni Ardanzen jostundegira, baina “ezin nuen jostorratza hartu ere egin eta eskuz jokatzeari laga behar izan nion. Palara pasatu nintzen”. Urte mordoxka egin zuen josten ikasten, “josten eta ahal nuen guztietan palaz jokatzen”.

Frontoia eskolarik onena

Eibarren hiru erraketista eskola egon ziren, baina aurreko urteetan; Charok eskola bakarra izan zuen: frontisaren horma. Sarri joaten zen inguruko herrietara partidak ikustera, Elgetara, Mallabira, Eibarko Astelenara... “Gustatzen zitzaidan frontoia, gustatzen zitzaidan pilota

Charo de Cruz: “Eskua oinarekin zapaltzen nuen handitasuna jaisteko”





Charo de Cruz, bigarrena ezkerretik hasita.

jokoa eta azkenean lortu nuen pilotari izatea!” diosku harrotasunez.

Baina ez bakarrik pilota, bere gogorapenen haritik tiraka beste zaletasun batzuk ere ageri dira: ehiza gustuko zuen eta bera izan zen Ermuan arma-baimena atera zuen lehen emakumea, Kuartelean andra bat izatean egin nahi ez zioten arren; mendira sarri joaten zen, Urkora batik bat; futbolearen nesken bi taldetan jokatzen zuen, Eibarko SKFn eta Ermuko mitiko hartan, berauen kapitaina izanik. Tarteka errekarra, karramarroak hartzera edo Matilde Isasi-Isasmendiri laguntzera, injekzioak jartzten.

Debuta Madrilen

Ezkondu ostean Madrileren bizi izatera joan zen eta arma-denda bat jarri zuten berak eta senarrak. “Behin, ene... frontoi bat! Han sartu

nintzen aidean!”. Madrid frontoia zen; erraketistak behar zituzten. “Buenooo, hori arazo barik egiten dut nik!” esan zion intendenteari. Hurrengo goizean, zelan jokatzen zuen ikusteko froga bat egin eta segituan arropak egitera bidali zuten, debutatzera zihoala berehala. Gona zuria, tolesduna eta alkandora bi, bata gorria eta urdina bestea. Alkandorek gerriko bat ere zuten, oihal berarekin egindakoa. “Nik neuk josi nuen jantzia; Dioninean ikasita nengoen eta ziztu bizian prestatu nuen” gogoratzen du. Zapatila eta galtzetinak, zuriak eta barruko arropak ere kolore berekoak “handiak, ondo estaltzeko guztia. Dena den, korrika egiten genuenean, dena ikusten zen, gaur eguneko tenislariet bezala”.

Frontoian sartu eta bi egunetara egin zuen bere debuta, Chari izena-

rekin. 1974ko urriaren 21a zen eta 25 urte zituen. Madrid pilotaleku hartan zazpi urte eman zituen joko bizian, hileko 25-30 partida jokatuz. 350 pzt. hasi zen kobratzen partiduko eta, kategoriaz igo ahala, 1500 pztako. soldatara ailegatu zen “oso ona sasoirako”.

Goizetan dendan eta arratsaldean frontoira, partida bi jokatuz eguneko. “Orduan lumatxo bat nintzen, horman gora ere igo ahal nintzen, baina deseginda amaitzen nuen!” dio ermuarrak. Indarra eskuratzeko, sendagileak gomendatu zion lehen partida amaitzeaz batera gibela edo okela jatea, erdi gordina ahal dela “gaueko partidari ezin izango nion eutsi bestela!”. Baina Charik eutsi zion eta ondo gainera! Hurrengo alean ere, bere erraketari jarraituz, Madrilen kantxaratuko gara berriro.

Zaporeaki laguntzeko erronka Debabarrena osora zabaldu dute

Testua **EKHI BELAR**

Orain dela bost urte Ermuko eta Eibarko sukaldari batzuek hasitako erronka eskualde osora zabalduko dute aurten eta, horrela, Debabarreneko herri guztietan egongo da Zaporeak elkarteak Greziako Lesbos uhartean dauden errefuxiatuen alde egiten duen lan solidarioan laguntzeko aukera. Gainera, erronka hasi aurreko egunetan, elikagaiak bilduko dituzte eta rifak erosteko aukera egongo da.

Informazio gehiago
Zaporeaken webgunean:



Zaporeak elkarteak 1.600 otordu ematen ditu egunero Lesbos uharteko errefuxiatuen esparruan eta, horretarako, erakundeen aldetik jasotzen duen laguntzaz gain, herritarren ekarpenak berebizikoak dira. Zaporeak proiektua hainbat sukaldariren eskutik jarri zen martxan, eta eskualdean sukaldari solidarioak ditugula-eta, 2019an ekimen berezia abiatu zuten Ermuan eta Eibarren errefuxiatuei laguntzeko: “Baietz bakoitzak bere herrian 1.000 kilo janari bildu”. Esan eta egin, eta, gainera, rifak saldu zituzten eta paella erraldoia egin zen Ermuan. 4.000 euro inguru biltzea lortu zuten.

Herritarren erantzun ona ikusita, ekimena indarra hartzen joan da eta jasotako laguntza eta elikagaitasunak ere igotzen joan da urterot. Iaz, 6.200 euro bildu zituzten; aurten, kopuru hori gainditzea da erronka. Horretarako, hiru aukera ematen dituzte ekimenaren sustatzaileek: rifak erostea, elikagaiak

ematea eta martxoaren 25ean Ermuan egingo den ekimenen parte hartzea.

Rifak salgai

Rifak salgai jarri dituzte dagoneko, euro baten, eta irabazleek, eskualdeko jatetxe batean afaria irabazteaz gain, Eibarko Artisten Elkartearen kideek emandako artelan bana eramango dute etxera. Afariak Ermuko Amatek, Sagarra eta Mendiolan; Eibarko Casino, Kontent eta Baratzen; Elgoibarko Belaustegin; eta Itziarko Salegi jatetxeetan emango dira. Gainera, Eusko Label eta KMO produktuez osatutako oterra ere zozketatuko da.

Janari-bilketa

Zaporeaki laguntzeko beste modu bat elikagaiak ematea da. Horrela, martxoaren 20tik 24ra, Debabarreneko herri bakoitzean elikagai jakin bat jasoko dute, lekaleak batik bat. “Erraz egosten diren elikagaiak batzen ditugu, jende askori eman behar baitzaio jaten”, diote ekime-



Zaporeak elkarteari laguntzeko erronka antolatu eta laguntza eskaini duen jendea. SILBIA HERNANDEZ

naren antolatzaileek.

Ermuan, Soraluzen eta Deban arroz luzea bilduko dute, Mallabian eta Mendaron hodi erako makarroia, Eibarren dilista pardina, Elgoibarren garbantzu pedrosillanoa eta Mutrikun, berritasun bezala, arrain-kontserbak.

Oraindik ez dute zehaztu herri bakoitzeko elikagaiak zein tokitan jasoko dituzten, martxoaren hasieran zehaztuko baitituzte bilketa-puntuak.

Tupper solidarioa

Erronka honekin hasi zirenetik gertatu ohi den bezala, tupper solidarioak banatzen emango diote amaiera ekimenari eta aurten Ermuan egingo da ekintza, martxoaren 25ean. "Ekimen hau garrantzitsua da, errefuxiatu esparruetan zer jaten duten ikusteko balio duela. Ume askok galdetzen dute ia zer gertatzen ari den esparruetan", azaltzen dute antolatzaileek. Izan ere, tuperrak errefuxiatu esparruetan banatzen diren antzekoak

dira. Gainera, errefuxiatuen egoera hobeto ezagutzeko, Lesbosen gertatzen ari den errealitatea erakutsiko dute Ermuko kaleetan jarriko dituzten bideo batzuen bitartez.

Bazkide bila

Debabarrean egingo den ekintza hau garrantzitsua da Zaporea-kentzat, baina edozein laguntza da gutxi, eta elkarteari laguntzeko bazkide berrien bila dabilta. Beraz, kanpaina abiatu dute asmo horrekin. Bakoitzak nahi edo ahal duen kopuruarekin lagundu dezakeela nabarmendu dute, eta aportazio guztiak ongietorriak izango dira. Gainera, euro baten truke bazkari duin bat eman dezaketela gogorazi nahi diote jendeari.

Bazkide egiteko bi aukera daude: banku transferentzia bitartez, aldizkako transferentzia egiteko agindua emanda (ES14 2095 5092 00 9115250322 edo ES71 3035 0103 88 1030035880), edo, bestela, www.zaporeak.eus webgunearen bitartez.


Eskualdeko herri bakoitzean elikagai jakin bat jasoko dute martxoaren 20tik 24ra

Martxoaren 25ean tupper solidarioak banatuko dira Ermuan. Gainera, afariak zozketatuko dira errifen bitartez

Erdikokaleko zapata-denda eta estankua



Erdikokalen, 2019ko udan botatako eliza osteko eraikin txikixak bi denda ezagutu zitxuan bata bestiaren onduan. Bata bizikletak konpontzeko tailerra izan zan lehenengo eta zapata-dendia gero, Txisperuanekua deitzen zotsiena, Leontzio Aranbururen eta haren alaben kargu egon zena. Honen eskuman, estankua: gerra ostian jarri zeban Cornelia Txurrukak eta tabakoa eta seiluez gain jateko kontuak, abarketak, gozokixak, merengezko kanutilo ederrak... danetik saltzen zeban pixkat. 1964 urte inguruan Marcelino Menendez eta M^a Teresa Unzuetak erosi zeben eta estanko bezala euron ondorenguen kargu jarraitzen dau gaur egun be, 2010. urtian ondoko eraikiñera leku aldatu ziran arren.



Enter
INFORMÁTICA

SALMENTAK
IRAKASKUNTZA
ZERBITZU TEKNIKOKA

VI. Mendeurrena 19, behea
943 17 90 37
enter@informaticaenter.com

KARABIXA

KARABIXA KAFETEGIA

Egunero zabalik
08:30etik aurrera

Proba-Leku
Neopaindegia - Estetika

Probaleku 3, 1A
Tel.
943170542

Bosgarren mailako ikasleek Mallabia erakutsi zioten ingeleseko laguntzailea den Grace irakasleari



Otsailaren 7an, Mallabiko hainbat leku bisitatu zituzten 5. mailako ikasleek. Ingelesezko klaseetako “My town” (nire herria) gaia aprobetxatuz, ikasleek pentsatu zuten ideia ona zela iraskasle laguntzaileari Mallabia erakustea. Lehenengo geldialdia Kultur Etxean izan zen. Ondoren, Udaletxera joan ziren. Bertan alkatearen bulegoa, batzar gela eta dokumentu zaharren artxiboen gela ikusi zituzten, besteak beste. Gero, frontoia bisitatu zuten. Han, gimnasioa eta pilotalekua ikusteko aukera izan zuten. Geroxeago, herriko denda desberdinak bisitatu zituzten: Idoia herriko denda, ile-apaindegia, farmazia eta bankua. Herriko parkean amaitu zuten txangoa.

Eureka Zientzia Museora txangoa

Urtarrilaren 12an, Haur Hezkuntzako 4 eta 5 urteko eta Lehen Hezkuntzako 3., 4., 5. eta 6. mailako ikasleok Donostiako Eureka Zientzia museora joan ginen. Museoa ezagutzeko aukera izateaz gain, planetariumean unibertsoari buruzko azalpenak ikusi eta entzun genituen, eta robotikarekin zerikusia duten 2 tailer egiteko aukera izan genuen. Egun zoragarria pasatu genuen eta oso gauza interesgarriak ikusi eta ikasi genituen. Eskerrik asko bertako begirale eta langile guztiei gurekin izandako pazientzia eta harrera onagatik.



San Blas opilak egiten

Lehen Hezkuntzako 1. zikloko ikasleak opilak egiten aritu ziren otsailaren 3an, San Blas eguna aitzakitatzat hartuta. Gelan landutako errezeta eta osagaien neurriak tentu handiz banatuta ekin zioten lanari. Oso gogotsu ibili ziren eta emaitza paregabea izan zen! Goxo-goxoak atera zitzaizkien!!

SEHIGA
PROTECCION LABORAL Y BASTOS PARA LA ORDENADA

Goienkale kalea (Ermua)
Tel: 943 172 454
sehiga.proteccionlaboral@gmail.com

ZERMÍK
SISTEMA ELEKTRONIKOEN GARAPENA
DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS
ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT

ZERMÍK INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikokoak garatzen espezializatua dagoen ingeniaritza-enpresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.

www.zermik.com
Usaetxe plaza 6-8, behea
Arrasate-Mondragon (Gipuzkoa)
Telf: 943 23 10 12

Udal Euskaltegia
Teresa Murga Eraikina
Goienkale z/g 2. solairua
ERMUA - 943 170 925
ermukoudaleuskaltegia@gmail.com



JUAN CARLOS MARTÍN

Nolakoa izango da etorkizuna haientzat?

Barakaldon jaioa da. Harro esan zidan 30. hamarkadan Sobietar Errepublikara bidaiatu behar izan zuela, “gudako ume” gisa. 19 urte eman zituen bertan, eta 1956an itzuli zen Euskadira. Garai hartan, azaldu zidan, emakume batentzat zaila zen lana topatzea, nahiz eta goi mailako ikasketak izan. Ezkontzea eta seme-alabak izatea zen haien betebeharra. Bera bezalako emakumeek beldurra sortzen zuten garaiko gizarte matriarkalean, non emakumeek etxearen eta seme-alaben ardura hartu behar zuten. Madrilera joan behar izan zuen lan bila. Sasoi batean lanean jardun zuen, ezkondu eta seme-alabak izan zituen arte. Ezagutu nuenean nagusien egoitza batean bizi zen eta, bere izaera lasaiarekin, orduko bere bizitzaren inguruko iritzia ematen zidan.

Berak bere bizitza aldatu zuen, berea ez zen herrialde batean igaro zuen haurtzaroa, itzuleran sentitu zuen ez zuela enkajutzen bere sorterriko gizartean, emigratu zuen, nekez topatu zuen lana, ezkondu zen, seme-alabak izan zituen, eta lan egiteari utzi zion. Azkenean, men egin zuen orduko gizarteak berarentzat ezarritako zueari.

Bere ilobek eta bere garaiko emakumeen ilobek enpresak zuzentzen dituzte, ministerioak zuzentzen dituzte, ezkontzen dira edo ez dira ezkontzen, seme-alabak dituzte edo ez dituzte... baina lan ezegonkorak dituzte baita ere, emakume izateagatik erasoak pairatzen dituzte, soldata baxuagoak jasotzen dituzte diskriminazioaren eraginez eta erahilak ere izaten dira.

Badirudi gauza asko aldatu direla, baina ez dira hainbeste aldatu. Gaur egun abandonatuta genituen bideetatik atzera joaten ari gara. Eta kezkatzen nau. Kezkatzen nau entzuteak eta irakurtzeak emakumezko eta gizonezko politikariek, kazetari eta iritzi-emaile anitzek ardurako postuetan dauden emakumeen kontrako jokaera nazkagarrien aurrean duten tolerantzia jarrera. Jakin dezaten: iritzi formarekin landatzen duten hazi hauetatik geroko gorrotoa ernetuko da.

Argi daukadana da etorkizuna Emakumeena izango dela: ordukoena, egungoena eta gerokoena.

“Gaur egun abandonatuta genituen bideetatik atzera joaten ari gara”

XURDANA ZUBIA

Betiko ermuarra, bi neba-arreben artean gazteena da. Bi seme-alaba ditu eta Ermuan zehar hainbat lanetan aritu eta aritzen da.

Testua **NAHIA RUIZ ALBIZURI**

Nola gogoratzen duzu haurtzaroa?

Oso ona, pozik Ikastolan. Gogoan dut elizan hasten ginela eta gero Santa Anara joaten ginela. Hortik Ikastolara joan nintzen gero.

Eta nola gogoratzen duzu gaztaroa?

Askoz hobea oraindik! Gogoratzen dut Txindurri dantza taldean nengoela eta kanpora joaten ginela. Giro oso ona zegoen. Garai horretan ere hasten ginen festetan irteetan, eta oso ondo pasatzeko aukera izan nuen. Gogotsu gogoratzen dut gaztaroa.

Ikasteko aukerarik izan zenuen?

Bai, UBI egin nuen eta gero lanean hasi nintzen. Garai hartan lan asko zegoen eta ikasketak ez ziren beharrezkoak lan egiteko.

Zer irakatsi dizute gurasoek?

Umeei beti esaten diet nire gurasoei esker naizela naizena. Arauak jartzen zizkidaten, azken finean

beharrezkoak baitira bide onetik joateko, baina ez ziren inoiz zorrotz-zorrotzak izan.

Lanik baduzu?

Bai. Ikastolako autobusean ibiltzen naiz begirale, Txindurri ere talde bateko begiralea naiz, eta gero Zulkaldatun nago dendari.

Zer da lanean gustoko duzuna?

Jendearekin ibiltzea, haiekin harremanak edukitzea.

Eta txarrena?

Jendearekin ibiltzea ere. Asko gusatzen zaidan arren, momentu batzuetan zaila egiten zait pazientzia izatea. Normalean ez daukat arazorik, baina batzuetan neure buruari gogoratu behar diot pazientzia izan behar dudala.

Bidaia bat egingo bazenu, nora?

Karibera, erlaxatzera. India ere badut buruan baina beste bidaia mota bat izando zen, ez nintzen bertara



erlaxatzera joango.

Zure bertute bat?

Umore ona. Esango nuke beti nagoela umore onez.

Eta akatsen bat?

Batzutan agian zakarregi hitz egiten dudala. Zerbait esan, eta noizbait pentsatzen dut agian beste moduren batean esan nezakeela. Hala ere, ezagutzen nautenek badakite ez dela pertsonala.

Zerbait egin ez izanaren pena duzu?

Ingelesa ez ikastearena. Gehiago bidaiatu ez izanak ere pena sortzen ditu, baina umeak ikusten ditut ingelesez ondo berbetan eta ikasi ez izanaren pena dut.

OSASUNA * ESTETIKA
EDERTASUNA

Marfil

Goienkale 12 *De-apirandegi bat
baino gehiago!!*

943 17 28 09

Egokিতതകു burua
garbitzeko konketa

Caperos

Probaleku z/g
(ERMUA)

Pintxoak
Razioak
Kaxolak
Plater konbinatuak
Ogitartekoak

699 292 043
636 549 154



Kopi-Fax

FOTOKOPIAK
KOLOREZKO FOTOKOPIAK
HANDIPENAK - TXIKIPENAK
PLANOAK - AZALEZTAPENAK
FAX PUBLIKOAK
INPRIMAKETAK KAMISETATAN

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89

TXALAPARTA
ABERNA

Eta asteburuetan
pintxoak, afariak
eta bokatak!

- Itsaskabra pudina.
- Txipirotiak.
- Piper beteak: okela edo ondoak.
- Fritoak: urdalaizpikoa edo ondoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

Erdikokale 13
(Ermua)

ENKARGUAK
943 030 299

1948

E R M U A

Ezkerretik eskumara begiratuta Mari Tere Ibaibarraiga, Esther Azkarate, Pilar Bilbao eta Julita Zenarruzabeitia. Berrizko jaietara joateko horrela jantzi ziren. Trenera diru justuarekin joan omen ziren: haranzkoan, txartela erosita arazo barik, baina bueltarako lain ez zutenez, Berrizko senide baten etxera joan behar izan zuten diru eske etxeratu ahal izateko.



1984

M A L L A B I A



Argazki hau 1984ko inauterietakoa da. Mallabiko eskolako umeak agertzen dira frontoi aurrean inauteriak ospatzen.

Argazkian agertzen dira: Agustin Solozabal, Eneritz Zenikazelaia, Virginia Bakedano, Itziar Pradera, Iñaki Alberdi, Itziar Suberbiola, Mikel Martinez, Mirari Antxia, Zorion Alberdi, Maitane Gallastegi, Beatriz Izarra, Mikel Gerenabarrrena, Juanma Ferreiro, Sorkunde Solozabal, Jaione Castañeda, Inma Casado, Garikoitz Txakartegi, Zorion Abendibar, Pedro Mari Zubiate, Unai Martin, Jaime Telleria eta Arrate Martin.

IRAGARKI LABURRAK

Matematikako, fisikako eta kimikako klase partikularrak eskaintzen dira DBHn dauden ikasleentzat ☎ 688 68 36 55.

EHUko fisikako ikasleak eskola partikularrak ematen ditu: DBHko Matematika, Fisika eta Kimika ☎ 626514969

Pintura/eskultura estudioa konpartitzeko pertsona bat bilatzen ari gara. Ermuko Komentukua kalean ☎ 688695331

Bi lagunek baserria hartuko lukete errentan Ermua inguruan ☎ 688642761



Iragarkia edo zorion-agurra kaleratzeko, bidali mezu elektronikoa helbide honetara: drogeten@gmail.com
Azken eguna: **Martxoaren 24a**.



Otsailaren 15ean Zorionak **MATEO**!!!
2 urtetxo gure bizitza hankaz gora jartzen!!! Patxito erraldoi bat familia guztiaren partez pitxin!!! Asko maite zaitugu gure "rubiales"!!!



Otsailaren 21ean Zorionaak etxeko txikixari!! 4 urte maitxia!! Primeran ospatukou aurten mozorroz ingur-rutata. Patxo pila danon partez!!




Martxoaren 1ean Zorionak **ANDER**!!!!
Gure etxeko gizontxoa 10 urteeee!!!!
Ondo pasa egune txapeldun!! Muxu haaaandiii bat etxeko denon partez!!!



Martxoaren 5ean Zorionak **ANERTXO**! Aita, ama eta familia guztiaren partez muxu handi bat.




Otsailaren 8an Zorionak **EKIA**!! 10 urte, neska haundi! Muxu pila familia osoaren partez!!



Otsailaren 19an Zorionak **OIHAN**!
Lau kandela zure pasteltxoan, zu bai mutil handixa! Gozatu zure egunaz, txapelduna! Patxo eta besarkada erraldoi bat, Nahia-ren partez bereziki! AMZ



Martxoaren 15ean: Zorionak **ANE**!! Bi urte gure etxeko mari lokik!! Egun polita izan eta segi horrela bonboitxo! Maite zaitugu pilo bat!



Otsailaren 18an Zorionak **HODEI**!
Zure lehengo urtebetzea!!!! Besarkada potoloa familia osoaren partez! Maite zaittugu.

CAPRI
PIZZERIA
943 03 33 15

aral

Luis Cañas	Cair
Amaren	Casar de Burbia
Cair	Bodegas Valdemar
Ehun	García de Olano
Txakoli Astobiza	Manzanos Wines
Pazo Señorans	Pemord Ricard Wines
Cava Oriol Rossell	Faustino García Martínez.

aral@aral97.com | Pol.Goitondo-Goihoa, Parc.7 - Pob.1 | 48269 Mallabia (Bizkaia)

nitida

T.943176075

RIF

ITURGINTZA
KONPONKETAK

Marques de Valdespina 16
ERMUA
605 71 10 81 / 688 71 27 10

ZINEA

4tik 6ra: "Almas en pena de Inisherin" + "Living"
11tik 13ra: "Ellas hablan" + "Till"
18tik 20ra: "Irati" + "Todo a la vez en todas partes"
25etik 27ra: "Los Fabelmann" + "Unicorn Wars"
 Ermua Antzokian. Hainbat ordutegi.



ZINE KLUBA

Hilak 2: "Joyland"
Hilak 9: "The quiet girl"
Hilak 16: "El triángulo de la tristeza"
Hilak 23: "To Leslie"
Hilak 30: Laburbira (film laburren emanaldia)
 Ermua Antzokian. 20:30ean.

UMEENTZAKO ZINEA

Hilak 5: "Mi querido monstruo"
Hilak 12: "Asterix y Obelix y el reino Medio"
Hilak 19: "Momiak"
Hilak 26: "Violeta, el hada traviesa"
 Ermua Antzokian. 17:00etan.

MUSIKA

Hilak 4: Flamenko jaialdia: "No ni ná", Alicia Gallardo dantza eskolaren eskutik. (Andaluziako eguna). 16:00etan. Ermua Antzokian. Sarrera dohainik aforo mugatuarekin.
Hilak 10: Kontzertua: Ainoa Buitrago. 20:30ean. Ermua Antzokian. Sarrera: 10€.



Hilak 11: Blues Kontzertua: The Cyborgs. 20:00etan. Lobiano Kulturgunean. Sarrera: 10€.
Hilak 17: Abesbatzen kontzertua: Sanfran korue (Bil-

bo), Ekidazu (Lezama) eta Pispillu (Ermua). 20:00etan. Santiago elizan.
Hilak 22: Kontzertua: Alboka Musika Eskolako ikasleak. 19:00etan. Ermua Antzokian. Sarrera dohainik.
Hilak 25: Kontzertua: Jon Moma. 20:00etan. Lobiano Kulturgunean. Sarrera: 6€.

UMEENTZAKO IKUSKIZUNAK

Hilak 11: Haurrentzako ipuin-kontaketa ingelesez. 17:30ean. Lobiano Kulturgunean.
Hilak 24: Haurrentzako ikuskizuna: "Urteak bete, abenturak bizi", Porrotx eta Marimototsen eskutik. 17:00etan eta 19:00etan. Ermua Antzokian. Sarrera: 6€.



Hilak 25: Haurrentzako ipuin-kontaketa. 17:30ean. Lobiano Kulturgunean.

ANTZERKIA

Hilak 3: "Solo críos, críos solos", Zanguango Teatroaren eskutik. 20:30ean. Ermua Antzokian. Sarrera: 10€.
Hilak 17: "Hoy puede ser mi gran noche", Teatro en Viloren eskutik. 20:30ean. Ermua Antzokian. Sarrera: 10€.
Hilak 31: Umorea: "Del deporte también se sale", Javi Sanchoren eskutik. 20:30ean. Ermua Antzokian. Sarrera: 12€.

BESTELAKOAK

Hilak 11: Sagardo eguna. 12:30etatik aurrera. Orbe Kardinalaren plazan.
Hilaren 13tik 19ra: Kazolaxoren astea. Ermuko tabernetan.

Patxi López

**TXINDURRI
TALDEA
Tokian
tokiko**

URRETA burdindenda

- * Etxea
- * Tresneria
- * Brikolajea
- * Errealak
- * Giltzak
- * Sarrailagintza
- * Kit altzarriak

Zeharbatea 8 Tel: 943 17 65 61 ERMUA

Iberikoetan
espezialistak

Mayte

VI Centenario 5 · ERMUA
943 172 412

PRO
arraindegia

**ITSASKIAK
ARRAIN FRESKOAK
ETA IZOZTUAK**

Zubiaurre, 21
943 17 16 96
ERMUA

GREMIOEN

GIDA



ITURGINTZA
ITURGINTZA, GAS ETA KALEFAKZIOA
LUIS VALLE
Valle
Bainugelen erakusketa
943 17 15 56
Tailerra
943 17 23 56
Goienkale z/g

PERTSIANAK
ORBE
TOLDOS Y PERSIANAS

- Toldoak
- Ostalaritzarako muntaiak
- Pertsianak
- Instalakuntzak eta konponketak
- Motorizazioa
- Manparak
- Segurtasun pertsianak
- Pertsiana dekoratiboak
- Estoreak
- Eltxo-sareak

Tailerra:
Zeanreko Buelta 2.
943 17 66 34 - 630 01 13 41
48260 Ermua (Bizkaia)

Erakusketa: Karabixa 1
48260 Ermua (Bizkaia)
943 17 98 60
persianatorbe@gmail.com

ERROTULAZIOA
ROTEK
R Ó T U L O S

Argi errotuloak · 3D letrak · Ibilgailuak
Erakustokiak eta azokak · Formato handiak
Publizitate kanpainak · Led pantailak

943 17 00 36
www.rotekrotulos.com

ROTEK
LED PANTAILAK

ETXETRESNAK
Egaña
ETXETRESNA ELEKTRIKOEN
SALMENTA ETA KONPONKETA
Diputazioa 7 (Ermua) · 943 17 66 08

ITURGINTZA
ITURGINTZA - GASA - BEROKUNTZA
PALACIOS SM
ENPRESA INSTALATZAILE BAIMENDUA
GREMIOEN KUDEAKETA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
San Pelayo 26, behea · Ermua (Bizkaia)
info@palaciosfontaneria.com
www.palaciosfontaneria.com
660 72 95 03 · 659 75 74 59 · 943 53 92 23

ELEKTRIZITATEA
BETA
ARGIZTAPENA
ELEKTRIZITATEA

- Proiektuak
- Instalazioak
- Erreformak
- Kalefakzioa
- Gaukeko tarifa
- Erradiadore elektrikoak

Diputazio, 13
943 17 65 25
689 23 31 71

Gremioen Gidan publizitatea jarri nahi baduzu...
943 17 93 50 / 688 63 28 76 / drogeten@gmail.com



**AUKERARIK
ONENA,
ETORKIZUNA
DUENA**

Zatoz ate irekietara!



ArmeriaEskola^x

